



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Aldundiak eta Galdakaoko Udalak N-634 errepidean semaforo bitartez erregulautako igarobidea egingo dabe Bengoetxeko oinezkoentzako tunelaren ordeztu

Bilbon, 2014ko apirilaren 30ean

Bengoetxeko oinezkoentzako tunelak alternatiba eukiko dau. Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako foru diputatuak Batzar Nagusien aurrean egindako agerraldian iragarri dauenez, Aldundia eta Galdakaoko Udala, une honetan oinezkoek N-634 errepidea kurutzetako erabilten daben “puntu baltz” horretarako “behin betiko” soluzinoaren diseinuan dagoz beharrean. Erakunde biak lur ganeko ibilpidea bilatzen ari dira, Ibaizabal kalean oinezkoentzako semaforo bidezko igarobidea egiteko, Sixta Barrenetxea kaleagaz dagoan bidekurutzearen parean, hori egin ostean lur azpiko tunela itxi ahal izateko.

PP taldeak Bizkaiko Batzarretako Herri Lan eta Garraioetako Batzordean egindako galderari erantzunez, Garamendik adierazo dau aukera hori aurrera eroan ahal izateko, teknikariak, Sixta Barrenetxea kaletik N-634 errepidera dagoan sarbidea baliobakotzeko eta trafikoa Aperribai Bidetik desbideratzeko aukerea aztertzen ari dirala, foru aldundiaren esku dagoan errepideagaz bat egiten dauan biribilguneraino, Norbegako lantegiaren ondora. Alternatiba hori “errazoizkoa da”, semaforoak hor dagozalako “eta posible dalako puntu horretan oinezkoentzako igarobide bat egitea”. Udala idazten ari dan eta, Garamendiren berbetan, “ahalik eta arinen” egingo dan proiektu teknikoan jarraipena emongo jake zerbitzuko bidea be kurutzatu behar daben oinezkoentzako ibilpideei.

SMS-A, BARIK TXARTELAGAZ OKER KOBRAUTAKOEN BARRI EMOTEKO

Saio berean, diputatuak barriro azaldu dau Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP-CTB), Barik txartela erabiltean egiten diran kobratze “okerrak” dirala eta aurkeztutako erreklamazioei erantzuteko eta konponbidea emoteko aurrera eroaten dauen protokoloa. Otsailean beste agerraldi batean egin eban moduan, BGP-CTB-k oker kobrautakoaren itzulketea SMS bitartez jakinarazoten jakela erabiltzaileei adierazo dau, kasu bakotxa aztertu eta sistemak akatsa izan dauela egiaztatu eta gero. Garamendik adierazo dauenez, kexa “guztiak” erantzuten dira, eta kasu positiboetan, zenbatekoa denpora tarte “laburrean” itzultzen da.

Aldundiko arduradunak gogoratu dau, baita be, denporagaz, arazo ekonomikoak dirala eta aurkeztutako kexek beherakada “azpimarragarria” izan dabela. Horrek erakusten dau Bizkaian ezarri dan sistema “arrakastatsua” dala. Bere berbetan, BGP-CTB-tik Bariken erabiltzaileen erreklamazioei erantzuteko ezarri dan protokoloa kasu “guztietan” ari da funtzionetan. EH Bildu taldeak zalantzan jarri dau hori, “urtebete baino gehiago” erantzunaren zain egon ostean erabiltzaile batek Bilbobusen erantzuna “atzo” jaso ebala adierazoz.

Horrez gain, Garamendiren agerraldia eskatu dauen EH Bildu taldeak salatu egin dau BGP-CTB-k “901” telefono zenbaki bat erabiltea “ukipen bako” txartelaren erabiltzaileen zalantzak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

eta kexak kudeatzeko. Hori dala eta, bat baino gehiago dira deitzen ez dabenak, deiaren kostuaren “erdia” ordaindu behar dabelako. Batzuetan, deitzeagaitik kobretan jaken dirua, erreklametan dana “baino gehiago” be izan daiteke, esan dau Aitor Torre Bilduko batzordekideak.

Beste alde batetik batzordean PP-k eskaerea egin deutso Aldundiari, Aldundiaren web-gunearen eukiak eguneratu daizan, Bizkaibusen “tituluei eta tarifei” jagoken atalean. Bertan adierazoten dan informazioa “ez dago bape argi” –Jesús Isasi batzordekide popularraren eretxiz–, Bizkaiko Garraio Partzuergoak emoten dauen Barik txartelari jagokonez.

Garamendik adierazo dauenez, ukipen bako txartelari buruzko informazioa beste lau ki batean dago, eta PP-ko ordezkariari gogoratu deutso Barik txartela Bizkaibusen erabilera ordaintzeko modua izateaz gain, bertan beste garraio titulu batzuk be biltzen dirala, Creditrans, Gizatrans edo Hirukotrans, adibidez, eta, hori dala eta, titulu horreei buruzko informazioak web-gunean jarraitu behar dauela.

AGERRALDIA EGINGO DA BIZKAIBUSEKO LIZITAZINOEI BURUZKO INFORMAZINO A EMOTEKO

Saio berean, EH Bilduk agerraldi eskaerea egin dau, Bizkaibusen “Jarraipen Batzordearen” bileren eukiei eta uri arteko lineen hurrengo lizitazinoei buruzko informazioa emoteko. Aldundiaren esku dagozan lineak berrantolatze ko zabaldu dan lehiaketeari jagokonez, ez dagoala barrikuntzarik adierazo dau Garamendik. “Ez dago ezer esleituta” gogoratu dau, “uda aurretik” batzarretako taldeei lizitazino prozesuari buruzko informazioa emon ahal izateko beharrean ari dirala gogoratu ostean.

Aldundiak eta Bizkaibusen ordezkari tzea daukien sindikatu guztiek (UGT, CC OO, ELA eta USO), LAB sindikatuak izan ezik, osatutako jarraipen batzordeari jagokonez, 2013ko urrian sortu zanetik hiru bider alkartu da, langileen subrogazinoagaz, lehiaketen egoereagaz, erakundeen arteko negozi azinoen garapenagaz eta Bizkaibuseko lineetan ezarri daitekezan hobekuntza posibleakaz erlazio nautako gaiak lantzeko. Diputatuak iragarri dauenez, organo hori datorren maiatzaren 15ean alkartuko da barriro.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación y el Ayuntamiento de Galdakao sustituirán el túnel peatonal de Bengoetxe por un paso regulado con semáforo en la N-634

Bilbao, a 30 de abril de 2014

El túnel peatonal de Bengoetxe tendrá una alternativa más segura. La diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha anunciado hoy en una comparecencia en las Juntas Generales que la Diputación y el Ayuntamiento de Galdakao trabajan en el diseño "definitivo" de una solución para este "punto negro" de inseguridad para las mujeres que sirve actualmente para cruzar la N-634. Las dos instituciones buscan un itinerario en superficie a través de un paso peatonal regulado por semáforo en la calle Ibaizabal, a la altura del cruce con Sixta Barrenetxea que permita anular después el túnel subterráneo.

En su respuesta a una pregunta del PP en la comisión de Obras Públicas y Transporte del Parlamento de Bizkaia, Garamendi ha señalado que, para hacer posible esta posibilidad, los técnicos están analizando la posibilidad de eliminar el acceso a la N-634 desde Sixta Barrenetxea y desviar el tráfico por Aperribai Bidea hasta la rotonda que conecta con la carretera foral, a la altura de la planta de Norbega. Esta alternativa "resulta razonable", ya que los semáforos existen, "con lo que es posible la ubicación de un paso de peatones". En el proyecto técnico que está elaborando el Ayuntamiento, y que será ejecutado "lo antes posible" según Garamendi, se dará continuidad a los itinerarios peatonales que deben atravesar también el vial de servicio.

SMS PARA INFORMAR DE COBROS INDEBIDOS DE LA BARIK

En la misma sesión, la diputada ha explicado nuevamente el protocolo que ha establecido el Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) para responder y solucionar aquellas reclamaciones que se producen por cobros "indebidos" en el uso de la tarjeta Barik. Como ya hiciera en febrero en otra comparecencia, se ha referido a que el CTB viene comunicando a los usuarios por medio de un SMS la devolución de un cobro incorrecto tras analizar y comprobar que el sistema ha cometido un fallo, previa denuncia del usuario. Garamendi ha asegurado que "todas" las quejas son contestadas y, en caso positivo, el importe es devuelto en un "breve" plazo de tiempo.

La responsable foral ha recordado también que, con el paso del tiempo, se ha producido un "notable" descenso de quejas motivadas por temas económicos, lo que supone que el sistema implantado en Bizkaia es un "éxito". Según ella, el protocolo fijado desde el CTB para contestar a las reclamaciones de los usuarios de Barik, está funcionando en "todos" los casos, algo que se había puesto en duda desde EH Bildu al mantener que "un" usuario recibió "ayer mismo" una contestación de Bilbobus después de pasar "más de un año" esperando una respuesta.

Asimismo, EH Bildu, formación que había solicitado la comparecencia de Garamendi, ha denunciado que el CTB utilice un "901" para gestionar las dudas y quejas de los usuarios de la tarjeta "sin contacto", lo que puede hacer desistir a muchas personas ya que se está cobrando "la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

mitad” del coste de la llamada. En algunos casos, este importe cobrado por llamar puede incluso ser “superior” a lo que se reclama, se ha quejado el juntero de Bildu Aitor Torre.

Por otra parte, en la comisión, el PP ha pedido a la Diputación que actualice los contenidos de la página web de la Diputación en el apartado referido a “títulos y tarifas” de Bizkaibus, donde la información expuesta “no es nada clara”–según el apoderado popular Jesús Isasi–, en lo que se refiere a la tarjeta Barik que emite el Consorcio de Transportes.

Garamendi ha respondido que la información sobre la tarjeta sin contacto está incluida en un cuadro aparte y ha recordado al representante del PP que Barik es una forma de pago para Bizkaibus y un soporte que sirve para incluir en él títulos de transporte como el Creditrans, Gizatrans o el Hirukotrans, que deben seguir apareciendo en la web.

FUTURA COMPARECENCIA PARA INFORMAR DE LAS ADJUDICACIONES EN BIZKAIBUS

En la misma sesión, se ha sustanciado también una petición de comparecencia de EH Bildu en relación al contenido de las reuniones de la "Comisión de Seguimiento" de Bizkaibus y de las próximas adjudicaciones de las líneas interurbanas. Con respecto al concurso abierto para la reordenación de las líneas forales, Garamendi ha señalado que no existe novedad. “No hay nada adjudicado”, ha señalado tras recordar que trabajan para que “antes del verano” pueda informar en persona a los grupos junteros del proceso de adjudicación.

Con respecto a la Comisión de Seguimiento, formada por la Diputación y todos los sindicatos con representación en Bizkaibus (UGT, CC OO, ELA y USO) a excepción de LAB, la misma se ha reunido, desde su creación en octubre de 2013, en tres ocasiones para tratar asuntos relacionados con la subrogación del personal, la situación de los concursos, el desarrollo de las negociaciones interinstitucionales y las posibles mejoras a implementar en las líneas de Bizkaibus. Ha anunciado que este órgano volverá a reunirse el próximo 15 de mayo.